

Aita Agirrek bildutakoa

Azkeneko urteetan, beneditarra politika, gizarte nahiz kultura gaietan espezializatu da.

Ia denetatik bildu du Aita Agirrek Lazkaoko Beneditarren komentuko bibliotekaren ardura hartu zuenetik: komunitateak eguneroko bizitzarako behar dituen liburu eta aldizkariak, eta euskal gaien inguruan jaso ahal izan duen guztia -nahiz eta azkeneko urteetan politika eta gizarte nahiz kultura gaietan espezializatu den-. Horri, gainera, karmeldarrak Lazkaon egon ziren garaiko liburu zaharrak gehitu behar zaizkio. Gauzak horrela, Aita Agirrek bildutakoa bost atal nagusitan sailka daiteke:

Orotariko Biblioteka: Historian zehar komentuan bizi izan diren komunitateek bildutako liburu eta aldizkariak -karmeldarren liburuak, beneditarrek Bellochetik ekarritakoak, dohaintzan jasotakoak, erositakoak...-, XV. mendetik gaur egunera artekoak, eta erlijioa, filosofia eta historiarekin erlazionatutakoak batez ere.

Euskal Biblioteka. Euskal gaiekin lotutako liburu eta aldizkariak, XVII. mendetik gaur egunera artekoak, horietako asko eta asko klandestinitatean edo atzerrian ateratakoak. Euskal bibliotekaren barruan aipatzekoa da Euskal Hemeroteka, Aita Agirrek urteen poderioz bildutako 6.000 argitalpen ingururekin. Nabarmentzekoa da hemerotekaren aberastasuna trantsizio garaiko eta 80ko hamarkadaren lehen urteetako aldizkariari dagokienean.

Kartelak eta pegatinak. Mota guztietako kartelak eta pegatinak, guztiak ere euskal gaien ingurukoak, 70eko hamarkadatik gaur egunera artekoak gehienak.

Bildumak. Aita Agirrek urtetan bildutako materialarekin osatutako bilduma politikoak, sindikalak, gizarte eragile/mugimenduenak, kultur eragile/mugimenduenak eta beste batzuk.

Artxiboak. Hainbat pertsona eta erakunderen artxiboak Eraikin berrian aurkituko ditugu Euskal Hemeroteka, bildumak, artxiboak, kartelak eta pegatinak. Gainerakoak Beneditarren komentuko instalazioetan geratuko dira -Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Bibliotekako liburuen erosketa prozesua hasi zuen 2010ean, baina liburuak komentuan bertan geratuko dira, orain artean bezala-. Guztiak ere, ikertzaileen-tzat eskuragarri.